

John Daggsha

450. Neuburg St.

ETAPA 13.

BAKIO - PLENTZIA 20,3 KM

Desnivel +978m / - 982m



**GR[®] 123
BIZKAICO BIRA**

OINEZ
SENDERISMO
HIKING

LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA



Topogida - Topoguía






GR 123

BIZKAIKO BIRAOINEZ
SENDERISMO
HIKING

LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA



“

13. ETAPA Bakio-Plentzia | 20,3 Km / 7 h 35' h**Desnibela-desnivel + 978m / - 982m****MIDE datuak / datos MIDE**

13. Etapa	1	2	2	4	7h 35'
Arrisku faktore bat baino gehiago daude Hay mas de un factor de riesgo	Bideak edo jarraitzeak dederen seinalak Sendas o señalizaciones que indican la continuidad	Zaldibideko ibilaldia Marcha por caminos de herradura	3 eta 6 ordu arteko ibilaldia gelditu gabe De 3 a 6 horas de marcha efectiva	112 SOS DEIAK	

Arrisku faktore bat baino gehiago daude
Hay mas de un factor de riesgo

Bideak edo jarraitzeak dederen seinalak
Sendas o señalizaciones que indican la continuidad

Zaldibideko ibilaldia
Marcha por caminos de herradura

3 eta 6 ordu arteko ibilaldia gelditu gabe
De 3 a 6 horas de marcha efectiva

**Ikurrak - Iconos - Icons**

	Zu hemen zaude Ud, está aquí		Autoz iristeko puntu Acceso con vehículo		Baseliza Ermita
	Aterpea Refugio		Ondare arkeologikoa Patrimonio arqueológico		Atsedenelekua Área recreativa
	Ikuspegí panoramikoa Vista panorámica		Iturria Fuente		Hondartzia Playa
	Koba Cueva		Ondare monumental Patrimonio monumental		Megalito Megalith

**Web Euskera****Web Castellano****Track**

Hasiera”

GR 123ko 13. etapa honek Bizkaiko kostaidea zeharkatzen jarraitzen du. Oraingo honetan, Bakiotik Plentziaraino joango gara.

Kantauri itsasora begira egongo den etapa berri bat.

Etapa hasiera Bakio herri turistikoko hondartzan bertan egingo dugu, Uribe eskualdean. Berau Bilbotik oso hurrean dago eta abentura-kirolak egiteko eta naturaz gozatzeko gune aproposa da.

Bakioko itsaserta leku pribilegiatua da, hondartza, itsaslabar, kala eta pasealekuz inguratu. Bertan, Gaztelugatxeko San Juan nabarmentzen da, biotopo babestua, aurreko etapan bisitatu ahal izan duguna. Arkitektura erlijiosoari dagokionez, Basigo auzoan Jata mendiaren hegalean dagoen estilo gotikoko Andra Mari eliza nabarmendu behar da.

“Inicio”

La etapa 13 de la GR 123 “Bizkaiko Bira” sigue recorriendo el litoral de la costa vizcaína. En esta ocasión caminaremos desde Bakio hasta la localidad de Plentzia. Una nueva etapa con excepcionales panorámicas al Cantábrico.

El inicio de la misma lo haremos en la playa del pueblo turístico de Bakio, situado en la comarca de Uribe, que se encuentra muy cerca de Bilbao. Es una zona ideal para practicar deportes de aventura y disfrutar de la naturaleza.

El litoral de Bakio es un lugar privilegiado, rodeado de playa, acantilados, calas y paseos. En él sobresale San Juan de Gaztelugatxe, biotopo protegido, que hemos podido visitar en la etapa anterior. En lo que se refiere a la arquitectura religiosa, merecen destacarse la iglesia de Andra Mari, de estilo gótico, que se ubica en la ladera del monte Jata en el barrio Basigo.



B



13. Etapa BAKIO-PLENTZIA

KM - 0

Bakio / Maruri-Jatabe „

■ Regulador
■ Denominación
■ Consejo
Bizkai-ko Txakolina.
■ de Origen ■


Hondartzaren mendebaldetik hasiko gara ibiltzen, eta Estepona ibaiaren zubitik pasatu bezain laster, eskailera batzuk igoko ditugu Birjilandaroko bidea hartzeko. Metro batzuk aurrerago, asfaltoa utzi eta pixkanaka altuera hartzen joango den bidezidor batean sartuko gara. Bakio bailara osoko panoramika ederra eskainiko digu bide-zati honek.

Bailara honek beti eskaini izan ditu lur lasai eta emankorrik. Landa eta kostaldearen arteko binomioak izaera propio eta bereizgarria ematen dio herriari, hondartzako turismoaren eta ardogintzako ustiategien arteko giro nahasketak sortuz. Ingurune osoa Euskadin hain preziatua den txakolinaren erreferentea da.

Bakioko mikroklimak, itsasoarekiko hurbiltasunak eta lurren kalitateak mahatsondoaren laborantza erraztu dute historikoki. Txakolinaren tradizioa XIV. mendearren amaierakoa da herri honetan. Bakion ekoizten den txakolina Bizkaiko Txakolina jatorri-deiturakoa da, Euskadin ardo horren hiru izendapenetako bat. Bakiok txakolinarekin duen lotura hain da handia, non duela gutxi ardo zuri horri buruzko museo tematiko bat ireki duen.

Gure bideak gora egiten jarraituko du, baso artean itsasora begira. BI-3151 errepeidea zeharkatuko dugu eta bideak ez digu atsedenik emango Jata txiki mendiaren lepora iritsi arte. Handik jaitsiera malkartsu bat hasiko da, eta berriro ere Marurira doan errepeidea zeharkatuko dugu, Txatximintebekoa baserriaren parean. Eukaliptus mozketen ondorioz nahiko hondatuta dagoen pista-sare batek Urizarmendi mendiaren tontorrera eramango gaitu. Ondoren, ia beti lokatzuta aurkitzen den bide batetik jaitsiko gara Armintzako arrantza-portu txikiraino.





Bakio / Maruri-Jatabe ”

Comenzaremos a andar por el lado oeste de la playa y, nada más cruzar el puente del río Estepona, subiremos unas escaleras para tomar el camino de Birjilanda. Pocos metros más adelante dejaremos el asfalto para adentrarnos en una senda que irá ganando altura paulatinamente, ofreciéndonos una bella panorámica de todo el valle de Bakio.

Este entorno siempre ha ofrecido la imagen de tierra tranquila y abundante, donde el binomio entre lo rural y la costa, imprime a la localidad un carácter propio y distintivo, creando una mezcla de ambientes entre turismo de playa y explotaciones vinícolas. Todo el entorno es referente en la elaboración del txakoli, un vino suave, joven y afrutado, tan característico de Euskadi.

El microclima de Bakio, la proximidad al mar y la calidad de sus suelos han facilitado históricamente el cultivo de la vid. La tradición del txakoli se remonta a finales del siglo XIV en esta localidad. El que se produce en Bakio pertenece a la denominación de origen Bizkaiko Txakolina, una de las tres de este vino blanco que existen en Euskadi. Es tanta la vinculación de Bakio con el txakoli que recientemente se ha abierto un museo temático sobre este producto.

Nuestro camino seguirá ascendiendo entre explotaciones forestales y vistas al mar. Cruzaremos la carretera BI-3151 y la senda no nos dará descanso hasta llegar al collado del monte Jata txiki. Desde allí comenzará un escarpado descenso que nos llevará a cruzar otra vez la carretera que va a Maruri a la altura del caserío Txatximintebekoa. Un entramado de pistas bastante deterioradas, debido a las talas de eucaliptus, nos conducirá hasta la cima del monte Urizarmendi. Después bajaremos por una senda, casi siempre embarrada, hasta el pequeño puerto pesquero de Armintza.

„Armintza“

Egia esan, Armintza arrantza-auzo bat da, Urizar eta Andrakarekin batera Lemoiz udalerria osatzen duena. Kauko lurmuturrak eta Gazteluko haitzak babesten duten badia natural batean dago. Azken horren gainean eraiki zen XVIII. mendean, kanoi-bateria txiki bat zuen gotorleku bat, XIX.aren lehen herenean desagertu zena.

Gaur egun arrantza ia jarduera marginal gisa mantentzen bada ere, portu txiki horren erakargarritasuna nagusia, itsaskiz eta arrainez hornitzen den bertako gastronomia da.

Armintzako harkaitz-hondartza basatia da, labarrez inguratua, eta flyscharen fenomeno geologiko bitxia ere ikus daiteke bertan.

Ondoren, eskuinera egingo dugu Armintzako sarrerako biribilgune handian. Eroso egingo dugu aurrera eukaliptus-baso zabalak zeharkatzen dituen pista batetik. Igoera Ermua mendiaren tontorrera desbideratzeko bidegurutzean amaitzen da. Nahiz eta gure ibilbidea ez den tontor beretik igarotzen, gainetik dagoen itsasertzeko panoramikak merezi du apur bat desbideratzea.

Atzean Billano itsasargia utziko dugu. Itsasargi eder honek 21 metroko altuera du, Bizkaiko garaiena, eta itsasotik gorako 165 metroko altitudean, alajaina. 1990ean jasoa, estetika abangoardistako eraikina da inguruko itsas trafikoari 40km-ko irismena ematen diona. Horren azpian, 1940ko hamarkadaren hasieran, II. Mundu Gerraren garaian, Francok eginarazitako bunker-galeria bat dago, indar aliatuen balizko eraso baten aurrean babesteko neurri gisa.



„Armintza“

En realidad, Armintza es un barrio pesquero que junto con Urizar y Andraka, forma el municipio de Lemoiz. Está situado en una ensenada natural protegida por la Punta de Kauko y el Peñón de Gaztelu. Sobre este último se construyó en el siglo XVIII, un fortín con una pequeña batería de cañones, que desapareció en el primer tercio del XIX.

Aunque en la actualidad la pesca se mantiene prácticamente como una actividad marginal, su principal atractivo es su pequeño puerto langostero y marisquero, que provee de buenos mariscos y pescados a la gastronomía local.

La playa de rocas de Armintza tiene un atractivo salvaje, rodeada de acantilados, donde se puede contemplar el curioso fenómeno geológico del flysch.

Seguiremos nuestra etapa girando a la derecha en la gran rotonda de entrada de Armintza. Cómodamente avanzaremos por una pista que atraviesa extensos bosques de eucaliptus. La subida culmina en el cruce de desvío a la cima del monte Ermua. Aunque nuestra ruta no pasa por la misma cima, la panorámica costera desde lo alto merece la pena el corto desvío.

Atrás nos queda el faro Billano. Este precioso faro con 21 metros de altura, es el más elevado de Bizkaia, y a 165 metros de altitud total sobre el nivel del mar; casi nada. Construido en 1990, el edificio de estética vanguardista es el encargado de alumbrar el tráfico marítimo de la zona con un alcance de 40km. Debajo del mismo existe una galería de bunkers construidos por orden de Franco a principio de los años 40 durante la II Guerra Mundial, como medida de protección ante un posible ataque por parte de las fuerzas aliadas.



G

G

"

EU

KM - 18

Gorliz


Jaitsiera artadi kantauriarreko baso eder batetik hasten da, Gorlizko Fano auzoraino eramango gaituena. Ondoren, Kukulumendira iritsiko gara, itsaslabarren edertasun basatia ikusteko. Itsaslabarren gainean dauden hiru begiratokik itsasertzaren ikuspegi bikaina eskaintzen digute: Gorlizko hondartzza, Plentzia eta Barrika. Astondoko hondartzara helduta, harri bihurtutako dunak ikusiko ditugu, bakarrak euskal kostalde osoan. Harri bihurtutako dunak haizeak mugitutako harea-pilaketak ditugu, sedimentatu eta lehortu direnak. 1990ean Bizkaiko Foru Aldundiak Interes Geologikoko Gune gisa katalogatu zituen.

Astondoko hondartzza aldean, Gorlizko ospitalearen paretiak igaroko gara. Osasun-zentro hau 1919an ireki zen, eta Euskal Herriko zaharrenetako bat da. Garai hartan, tuberkulosia zuten umeentzat baino ez zen. Paraje hori eguzkitsua eta iodo askokoa zelako eraiki zuten. Haurren ospitalea izan zen 1980ko hamarkadaren amaierara arte. Gaur egun, gaixotasun kronikoak dituzten pazienteak artatzen ditu, eta arazo neurologikoetan espezializatuta dago, errehabilitazioaren laguntzaz.

Gure ibilbideak Butroe ibaiaren bokalea osatzen duen Plentziako badia ia guztia zeharkatuko du. Badia eder hau oso egokia da haurrak dauzkaten familientzat, edota windsurfa, surfa edo piraguismoa bezalako ur-kirolak egin nahi dituztenetzentzat. Bere olatua aukera onenetako bat da, baldintzak txarrak direnean eta itsasoa haserre dagoenean.



Z



ES

KM - 18

Gorliz

El descenso comienza por un hermoso bosque de encinar cantábrico, que nos llevará hasta el pequeño núcleo de Fano, ya en el municipio de Gorliz. Seguiremos hasta Kukulumendi, en la misma línea de costa, donde podremos apreciar la agreste belleza de los acantilados. Unos miradores situados sobre éstos nos ofrecen excelentes vistas del litoral, como la playa de Gorliz, Plentzia y Barrika. Llegando a la playa de Astondo, podremos observar las “dunas petrificadas” de Gorliz, únicas en toda la costa vasca. Estas dunas son acumulaciones de arena movida por el viento, que se ha sedimentado y secado. Fueron catalogadas como Punto de Interés Geológico por la Diputación de Bizkaia en 1990.

Caminando por la playa de Astondo, pasaremos frente al hospital de Gorliz. Este centro sanitario abrió en 1919, y es uno de los más antiguos de todo el País Vasco. En aquel tiempo, solamente era para niños con tuberculosis. Se construyó allí por encontrarse en un paraje muy soleado y con mucho yodo. Fue hospital infantil hasta el final de la década de 1980. Hoy en día, atiende a pacientes con enfermedades crónicas, especializado en problemas neurológicos, con ayuda de la rehabilitación.

Nuestro recorrido cruzará casi en su totalidad la preciosa bahía de Plentzia, formada por la desembocadura del río Butrón. De aguas tranquilas, esta bahía es ideal para familias con niños y para aquellos que desean practicar deportes acuáticos, como windsurf, surf o piragüismo. Su ola es una de las mejores alternativas, cuando las condiciones son adversas y el mar está furioso.



PLE

KM - 20,3

Plentzia”

EU

Konturatu gabe Gorlizko udalerritik Plentziakora igaroko gara. Kostaldeko bi herri horiek, urteetan zehar, bilbotarentzako opor-leku perfektua izan dira, Bizkaiko bi leku turistikoenetakoak bihurtuz. Udako egun batzuetan hirigune horiek aseta dauden arren, neguan lasaiago ikusiko ditugu, eta kostaldetik paseatzea bereziki gomendagarria izaten da.

Etapa honen amaiera Plentziako itsasadarra zeharkatzen duen “zubi berrian” jarri dugu. Herriko paisaiaren ezaugarrietako bat bilakatu da mugarrí arkitektoniko hau: oinezkoentzako Javier Manterola arkitektoak diseinatu zuen 150 metroko pasabide zuria, 1991n eraikia. Zortzi urte lehenago, 1983ko abuztuko uholde ikaragarriean, Butroe ibaiaren eragin indartsuaz zeharo suntsituta zen zubi zaharra ordezkatu zuen.

ES

Seguiremos por un agradable paseo adornado por pequeñas embarcaciones, y casi sin darnos cuenta pasaremos del municipio de Gorliz al de Plentzia. Estos dos pueblos costeros han representado durante años el destino de vacaciones perfecto para los bilbaínos y bilbaínas, consolidándose así, como dos de los lugares más turísticos de Bizkaia. Aunque en fechas señaladas estos núcleos urbanos se vean masificados, en invierno son más tranquilos, siendo muy relajante el pasear por su costa.

Esta etapa termina justo antes de cruzar la ría por el “puente nuevo”, uno de los hitos arquitectónicos que caracterizan el paisaje de la localidad. Se trata de una pasarela peatonal de color blanco de 150 metros de largo. Diseñada por el arquitecto Javier Manterola y construida en 1991, en sustitución del antiguo puente, que fue destruido por la enorme crecida del río Butrón, debida a las inundaciones de agosto de 1983.





GR[®]123

BIZKAIKO BIRA

LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA

Bultzatzailea: Bizkaiko Foru Aldundia

Promotor: Diputación Foral de Bizkaia

Tfn: 94 4067700



Bizkaiko
Mendizale
Federazioa

